

GOBERNU BATZARRA

2006. 06. 26

Beh. Beh. Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Jokin Azkue Arrastoa
Onintza Lasa Arteaga
Jose M. Vieites Gomez**

Beh. Beh Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Tolosako Udaletxean, bi mila eta seiko ekainaren 26an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeko eta erabakiak hartzeko:

1.-Aurreko akta onartzea.

2.-Tolosaldeko Mankomunitatea: Estatutoak.

3.-Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskaera.

4.-Proceder al pago del Justiprecio del Parque Elozegi y a levantar acta de su ocupación.

5.-I.L.I “Laskorain Goikoa” eremuko Birpartzelatzearen Likidazioa

6.- WordFast

7.- Kutixi.

8.-Euskal Herria plazako zentro sozilaren gastu-sarreren likidazioa.

9.-2007ko aurrekontua egiteko kronograma.

10.-15.Zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkatea ordeak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko ekainaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosaldeko Mankomunitatea: Estatutuak.

Gobernu kideek, jakinaren gainean geratu dira bere edukitaz. Argi gelditzen zaie Mankomunitatearen helburua ahalik eta zerbitzu gehien mankomunatzea dela. Bestalde, neurriaren ardurako ordekaritza aldatzeko egokitasuna ere azaldu da.

3.- Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskaera.

Gaia erabaki gabe geratu da.

4.- Proceder al pago del Justiprecio del Parque Elozegi y a levantar acta de su ocupación.

Con fecha 30 de enero de 2006, el jurado Territorial de Expropiación Forzosa de Gipuzkoa comunicó al Ayuntamiento su resolución de 15 de diciembre de 2005, en la que se fijó en vía administrativa el justiprecio de la expropiación del Parque Elozegi, así como que el Pleno Municipal, de 21 de febrero, acordó interponer contra dicha resolución un recurso judicial que actualmente se está tramitando ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, con el número de procedimiento Ordinario 228/06.

De conformidad con la resolución del Jurado el justiprecio de la finca asciende a la cantidad de 1.550.464,17 €, si bien el Ayuntamiento estableció dicho valor en su Hoja de Aprecio, en la cifra de 576.068,24 €, cantidad ésta que cuenta con partida presupuestaria específica, con cargo al presupuesto del ejercicio 2006.

Asimismo, se da cuenta del informe emitido el pasado 2 de junio de 2006 por los servicios jurídicos de este Ayuntamiento, en relación con el pago del justiprecio.

Por todo ello, esta Junta de Gobierno se da por enterada y acuerda proceder al pago de la cantidad establecida en la Hoja de Aprecio Municipal como justiprecio por la expropiación del Parque Elózegi.

5.- IL.I “Laskorain Goikoa” eremuko Birpartzelatzearen Likidazioa.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioek eta 1990eko ekaineko Plan Partzialak	En ejecución de las determinaciones previstas por las vigentes Normas Subsidiarias y el
--	---

<p>aurreikusten dituzten zehaztapenak betetzeko, 1991ko azaroaren 18an behin betiko onespena eman zitzaion IL1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartzelatze Proiektuari.</p> <p>Kudeaketa proiektua onartu zenetik hamabi urte eta gehiago pasa eta gero, eremuak bere osotasunean exekutatu gabe jarraitzen du, eta bi alderditan bereizten dira, garapen mailaren arabera: hegoaldea, gutxi gorabehera 19.000 m²-koa, erabilera industrialerako destinatutako espazioaren kolmatazioarekin; eta, iparraldea, 53.000 m²-koa gutxi gorabehera, ia ukitu gabe.</p> <p>Egoera horren ondorioz, eta, bestalde, Udalak Apattaerrekako poligono erraldoiaren aldeko apustua egitean industri garapen berriak kokatzeko eta daudenak birkokatzeko, 2000. urtean martxan jarri zen IL.1" Laskorain Goikoa" eremuaren gaineko Arau Subsidiarioen Elementuen barruko Aldaketa, aipameneko eremu horren jomuga birbideratzeko asmoarekin.</p> <p>Gipuzkoako Foru Diputazioak 2003ko abenduaren 16an eman zion behin betiko onespena dokumentuaren Testu Bateratuari.</p> <p>Ordenazio berriak, eremuaren mugak bere horretan utzita, zatitu egiten du hura bi gestio unitatetan: UE. RI 1A, birpartzelatze proiektuko 1 eta 9 bitarteko partzelak hartzen dituena; eta UE. RI 1B, 10 eta 36 bitarteko</p>	<p>Plan Parcial de junio de 1.990, el 18 de noviembre de 1.991, fue aprobado definitivamente el Proyecto de Reparcelación del Area SI.1 "Laskorain Goikoa".</p> <p>Tras más de doce años de aprobarse el proyecto de gestión el área continuaba sin ser ejecutada en su integridad, pudiendo distinguirse dos zonas con diferente grado de desarrollo, al Sur sobre una superficie de 19.000 m² aproximadamente, donde se ha producido la colmatación del espacio destinado a edificación de uso industrial, y al Norte, unos 53.000m², que se ha mantenido prácticamente inalterado.</p> <p>Como consecuencia de esta situación, y además en un contexto de apuesta municipal por el desarrollo del enorme polígono de Apatta-erreaka para la ubicación de los nuevos desarrollos industriales y reubicación de los ya existentes, en el año 2.000 se puso en marcha la Modificación Puntual de Elementos de las Normas Subsidiarias referida al Area SI.1 "Laskorain Goikoa", con el objetivo de reorientar el destino del ámbito.</p> <p>El Texto Refundido del documento fue definitivamente aprobado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, con fecha 16 de diciembre de 2.003.</p> <p>La nueva ordenación establece la división del ámbito, cuyos límites se mantienen, en dos unidades de gestión, la denominada UE. RI 1A que incluye a las parcelas 1 a 9 del proyecto de reparcelación- y la UE. RI 1B, en la que quedan</p>
--	--

<p>partzelak hartzen dituena.</p> <p>Lehenbiziko unitatean mugatu egiten da erabilera industrialerako lurzorua, eta kontsolidatuta dauden industriak eta aurreko planeamenduaren arabera garatutakoak kokatzen dira bertan.</p> <p>Bigarren unitateak, aldiz, beste hauek hartzen ditu: bizitegi erabilera berriak eta bertan integratuta geratu diren industrien ordez aurreikusten direnak.</p> <p>Eremuaren ordenazioak izan duen formulazio berri honek honetara behartzen du: 1991n hasi eta oraindik bukatu ez den birpartzelatze prozesua likidatzera. Eginbehar hori planeamendu orokorraren aldaketaren bidez ezartzen bada ere, beharrezkoa da, hain zuzen ere, bukatu gabe eta urtetan etenda egon den prozesuak eragin duen egoera nahasia erregularizatzeko.</p> <p>1991n hasitako birpartzelatze prozesuaren likidazioa da 2003ko abenduan onetsitako LI.1 “Laskorain Goikoa” eremuaren gaineko planeamendu aldaketak xedatutako zehaztapenetako bat; eta, gainera, legearen exigentzia bat da, Hirigintza Kudeaketaren Erregelamenduko 128 artikulua-rena, alegia.</p> <p>Ondorioz, likidazioa egiteari ekin zion Manolo Blasco Garcia abokatuak eta hasierako onespina eman zion Gobernu Batzarrak, 2005eko azaroaren 2an egindako bilkuran.</p>	<p>incluidas las parcelas 10 a 36.</p> <p>En la primera se delimita el suelo destinado a usos industriales y en ella se ubican las industrias consolidadas y las desarrolladas al abrigo del planeamiento anterior.</p> <p>La segunda recoge los nuevos usos residenciales, incluidos los previstos en sustitución de las industrias, que en ella han quedado integradas.</p> <p>Esta reformulación en la ordenación del ámbito obliga a practicar la liquidación de la reparcelación iniciada en 1991 y que todavía hoy continua sin terminarse. Esta obligación no solo se impone a través de la modificación del planeamiento general, sino que resulta necesaria para regularizar la complicada situación derivada de un proceso inacabado y paralizado desde hace varios años.</p> <p>La liquidación de la reparcelación iniciada en el año 1991 es una de las determinaciones establecidas por la modificación del planeamiento referida al área SI.1 “Laskorain Goikoa”, aprobada en diciembre de 2003, y es además una exigencia legal que se desprende del art. 128 del Reglamento de Gestión Urbánística.</p> <p>En consecuencia, se procedió a su elaboración por el Abogado D. Manuel Blasco Garcia y fue aprobada, con carácter inicial, por la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 2 de noviembre de 2005.</p>
--	--

Jendaurreko epea hasita gero, eta jabeei egin beharko jakinarazpen pertsonalak bukatu aurretik, akats batzuk zeudela egiaztatu zen eta horiek zuzendu egin behar ziren.

Egin beharreko zuzenketak egin eta gero, berriro tramiteei ekin beharra zegoen: hasierako onespena eman eta epe bat irekitzea informazio publikoan jartzeko eta ukituei entzuteko.

Horrela, jendaurreko epean sei alegazio idatzi aurkeztu dira, eta Birpartzelazioaren Likidazio Proiektua egin duen taldeak alegazio horiei buruzko txostena idatzi du.

Honen guztiaren aurrean, eta Hirigintza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

1.-Aurkeztutako alegazioak ondoren zehazten den moduan ebaztea:

1.1.- Juana Arbillagaren izenean Patxi de Assas-ek aurkeztutako alegazioa ez onartzea hurrengo arrazoi hauengatik:

Alegazioek aipatzen dituzten alegatzaileak egin dituen ordainketak, urbanizazio gastuen kontzeptuan, 1995eko urtean

Iniciado el período de audiencia y antes de culminar las notificaciones a toda la relación de propietarios e interesados afectados se constató la existencia de diversos errores en la misma, que deben ser rectificadas.

Efectuadas las correcciones oportunas en el documento, éste debe ser nuevamente objeto de tramitación, procediendo su aprobación inicial y la apertura de un nuevo período de información pública y audiencia a los afectados.

No obstante, durante este primer período de audiencia se han presentado seis escritos de alegaciones, que han sido informados por el Equipo redactor del Proyecto de Liquidación de la Reparcelación

Ante todo lo expuesto, esta Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

1.-Resolver las alegaciones formuladas en los siguientes términos:

1.1.-Desestimar la alegación presentada por D. Patxi de Assas, en representación de Dña. Juana Arbillaga, en base a las siguientes consideraciones:

Las alegaciones hacen referencia a los pagos que la alegante ha efectuado en concepto de gastos de urbanización, según la

<p>Tolosako Udalak onartutako eta sektoreko jabeei helarazitako likidazioaren arabera.</p> <p>Konkretuki, alegazioetan aipatzen dira jabeak egindako bi ordainketa hauek: 6 zenbakidun partzelaren gaineko urbanizazio kuota eta 31 zenbakidun partzelari buruzko kuota.</p> <p>Birpartzelazio Proiektuaren bidez adjudikatu zitzaion 6 zenbakidun partzela jabeari, finka bezala 13.201 zenbakiarekin inskribatuz. Bere azalera, onartutako Birpartzelazio Proiektuaren arabera, 906,21 m²-koa da, eremuaren % 2,99ko hirigintza kargarekin.</p> <p>Jabetza Erregistroko idazpenen arabera, atera den finka hau, 6 zenbakia duena, jabe honek berak saldu zion Sociedad Urto, S.L.ri. Jabe berriak finkaren 711,88 m²-ko zati bat banandu egin zuen eta Udalaren jabetzako beste baten trukean eman.</p> <p>Lehenbiziko jabeak 4.360.671 pta./26.208,16 €, ordaindu zituen 6 zenbakidun finkarengatik. Kopuru hori honi dagokio: urbanizazio gastuen udal likidazioari. Zenbatekoa 1995 urtean igorri zitzaion, alegatzailea 31 zenbakidun eta 6 zenbakidun finken jabea zela.</p> <p>Alegazioan planteatzen da Arbilla andreari inputatzea 6 zenbakidun finkarengatik ordaindutako zenbatekoa.</p>	<p>liquidación que en el año 1995 fue aprobada y girada a los propietarios de este sector por el Ayuntamiento de Tolosa.</p> <p>En concreto, se alude a pagos que la propietaria realizó, uno por la cuota de urbanización de la parcela resultante n.º 6 y otro por la cuota de la parcela resultante n.º 31.</p> <p>La parcela n.º 6 fue adjudicada a esta propietaria por el Proyecto de Reparcelación, e inscrita a su favor como finca n.º 13.201, con una superficie de 906,21 m², según resulta del proyecto de reparcelación aprobado, soportando un gravamen urbanístico del 2,99% del área.</p> <p>Según resulta de los asientos del Registro de la Propiedad, esta Finca resultante n.º 6 fue vendida por esta propietaria a la Sociedad Urto, S.L., practicando posteriormente el nuevo propietario una segregación de una porción de 711,88 m², que fue permutada con otra propiedad del Ayuntamiento.</p> <p>La propietaria abonó un importe de 4.360.671 ptas./26.208,16 €, por la finca n.º 31, y 3.562.406 ptas./21.410,49 € por la finca n.º 6. Estos corresponden a la liquidación municipal de gastos de urbanización, y le fueron girados en el año 1995, cuando la ahora alegante era propietaria tanto de la finca n.º 31 como de la finca n.º 6.</p> <p>Lo que se plantea en la alegación es que se impute a la Sra. Arbilla el importe abonado por la finca n.º 6.</p>
--	---

Baina hori ezinezkoa da. Izan ere, hauxe dago argi: Udalak 1995 urtean igorri zion jabe horri –IL.1 “Laskorain Goikoa” sektoreko gainontzeko jabeei bezala-urbanizazio kuotaren likidazioa, une hartan alegatzailea jabe errejistrala zen bi partzelengatik. Eta, ildo horretatik, Administrazioari ez dagokio aztertzea zer nolako termino eta baldintzatan saldu zion orduko jabeak erosleari aipatu partzela (ordaindutako edo Udalak likidatutako urbanizazio gastuak zegozkion partzela); logikoki, horrek salmenta akordioaren terminoen osagai bat izan behar zuen. Gainerakoan, horretaz zerbait hitzartu izan badute saltzaileak eta erosleak, honek aukera du dagokion diru-itzultzeko akzio zibilerako.

1.2.- Bat zenbakiarekin ateratako finkako lokalen jabeek aurkeztutako alegazioaren zati bat onartzea.

Alegazioak orekarik eza edo akats bat planteatzen du bat zenbakidun finkaren gainean egindako likidazioari dagokionez. Aipatu finkaren barruan hainbat lokal daude. Hain zuzen, ororen elementuetako partizipazio kuoten batuketak % 109,47ko guztizkoa ematen du birpartzelazio likidazioan. Hori hala gertatzeko arrazoia zera izan da: oker interpretatu dela Erregistroko informazioa.

Hau da, partizipazio kuoten batuketak 100eko emaitza eman behar du, eta dokumentuan agertu

Sin embargo esto no es posible. Lo que se evidencia es que el Ayuntamiento, en el año 1995 giró a esta propietaria –como al resto de los del sector SI.1 “Laskorain Goikoa” una liquidación por cuota de urbanización de dos parcelas de las que la alegante era titular registral en ese momento, sin que corresponda a la Administración entrar a examinar los términos o condiciones en que la entonces propietaria vendió al comprador de la parcela por lo que se refiere a los gastos de urbanización ya pagados o liquidados por el Ayuntamiento, que lógicamente han debido de formar parte de los términos del acuerdo de venta. Por lo demás, de haberse estipulado algo al respecto entre vendedora y compradora, asiste a ésta la correspondiente acción civil de reembolso.

1.2.- Estimar en parte la alegación presentada por los propietarios de locales de la finca resultante número uno.

La alegación plantea un desajuste o error en cuanto a la distribución interna de la liquidación practicada a la finca resultante uno, que alberga diferentes locales. En efecto, la suma de cuotas de participación en los elementos comunes refleja en la liquidación de la reparcelación un total de 109,47% que se ha debido a un error de interpretación de la información registral utilizada.

Por lo tanto, la suma de cuotas de participación debe sumar 100, reflejándose en el documento las

<p>behar dute lokal bakoitzari esleitutako barne kuotak.</p> <p>Idatzian planteatzen da argitzea ea dokumentu honekin likidaturik geratzen diren UER.I 1 A-ri dagozkion gastu guztiak, argiteriarengatik sor daitezkeen gastuen aipamena eginez.</p> <p>Alderdi horri dagokionez hauxe esan daiteke: likidazio dokumentuak jasotzen duena, benetan egindako gastuak besterik ez dituela aintzat hartzen.</p> <p>1.3.-Luis Garmendia Vitoriak aurkeztutako alegazioa onartzea</p> <p>Idatziaren bidez eskatzen da adierazteko “egin diren gastuetatik zein diren baliagarriak egoera urbanistiko berriarentzat”.</p> <p>Bestalde, hau adierazten du: igorritako urbanizazio kuotaren ordainketa, jabeak egindakoa, dokumentuan jasotakoa baino handiagoa dela.</p> <p>Horretaz hauxe esan behar da: alegazioak dioen bezala, eta egiaztaturik dago, jabeak ordaindu zuen kopurua 9.738,55 €-koa da. Zenbateko hori likidaziora eraman behar da.</p> <p>Bestetik eskatzen da aitortzeko saldo hartzekodun jakin bat jabearen alde likidazioan.</p> <p>Horri buruz hauxe aipatu behar da: jabeei inputatu daitezkeen gastu partida batzuk aldatu egingo direnez, batzuk baztertuz eta beste batzuk sartuz –lehen sartu</p>	<p>cuotas internas asignadas a cada local.</p> <p>Se plantea en el escrito que se aclare si con este documento quedan liquidados la totalidad de los gastos imputables a la UER.I 1 A, con alusión a posibles gastos por alumbrado.</p> <p>A este respecto, cabe decir que el documento de liquidación se refiere únicamente a los gastos realmente efectuados.</p> <p>1.3.-Estimar la alegación presentada por D. Luis Garmendia Vitoria</p> <p>El escrito solicita que se exprese “cuáles de los gastos efectuados son útiles para la nueva situación urbanística”.</p> <p>Por otra parte, se indica que el abono realizado por el propietario de la cuota de urbanización girada es superior al indicado por el documento.</p> <p>A este respecto, cabe señalar que tal y como señala la alegación y se acredita, la cantidad abonada en su día por el propietario es de 9.738,55 €, importe que deberá trasladarse a la liquidación.</p> <p>Se solicita por lo demás que se reconozca un determinado saldo acreedor a favor del propietario en la liquidación.</p> <p>Al respecto, debe señalarse que, en tanto que se va a proceder a modificar algunas partidas de gastos imputables a los propietarios, excluyendo algunas e</p>
--	--

<p>ez zirelako-, azken saldoa hauxe litzateke: Udalak berriro onartuko duen likidazio dokumentutik ondorio bezala ateratzen dena.</p> <p>1.4.- 36 zenbakidun partzelaren jabe diren Rezola jaunek aurkeztutako alegazioa ez onartzea, ondorengo arrazoi hauengatik:</p> <p>Idatzian adierazten da jabe hauen aldeko saldo bezala sartu behar zela eraikina botatzeagatik eman beharreko kalte-ordaina, birpartzelazio proiektuan xedatuaren arabera.</p> <p>Alde horretatik hauxe esan behar da: likidazioa praktikatzeko orduan erabilitako irizpidea hau izan da: aintzat hartzea, besterik gabe, benetan egindako gastuak – urbanizazio obrenak, eraisketa-orenak eta kalte-ordainak eta planeamendu eta proiektuena.</p> <p>Alegazioan aipatzen da jabe horien eskubidea “Rezola” etxea botatzeagatik kalte-ordaina jasotzeko. Eskubide hori ez du zalantzan jartzen egindako likidazioak. Hain zuzen, ez da sartu likidazio honetan arrazoi honengatik: UER.I 1 B-ko etorkizuneko birpartzelazioan ordainketa/kobrantsa baten gisakotzat jo delako. Hau da, oraingo likidazioan sartu gabe dago, eraikina oraindik bota gabe dagoelako, beren jabeek hartaz baliatzeko moduan.</p> <p>Jabe horiei adierazten zaie mantentzen zaiela egingo den birpartzelazioan kalte-ordaina</p>	<p>incluyendo otras que se habían omitido, el saldo final será el que resulte del nuevo documento de liquidación que habrá de aprobarse nuevamente por el Ayuntamiento.</p> <p>1.4.-Desestimar la alegación presentada por los Sres. Rezola, propietarios de la parcela n.º 36, en base a las siguientes consideraciones:</p> <p>Se alude en el escrito a que se debía haber incluido como saldo a favor de estos propietarios la indemnización por derribo de su edificio, aprobada en el proyecto de reparcelación.</p> <p>Al respecto, debe señalarse que el criterio con el que se ha practicado la liquidación es el de los gastos efectivamente realizados, tanto los de obras de urbanización, los de derribo e indemnizaciones y los de planeamiento y proyectos.</p> <p>La alegación se refiere al derecho de estos propietarios al cobro de su indemnización por el derribo de la casa “Rezola”. Este derecho no lo cuestiona la liquidación practicada, simplemente no se incluye como partida en esta liquidación, en tanto que se considera un pago/cobro en la futura reparcelación de la UER.I 1 B, y es por ello que no incluye en la actual, puesto que el edificio no ha sido derribado, permaneciendo en su disfrute sus propietarios.</p> <p>Se indica a estos propietarios el mantenimiento de su derecho a indemnización en la futura</p>
---	--

<p>jasotzeko eskubidea.</p> <p>1.5.- Jose Antonio eta Juan Ignacio Iturzaeta Ugartemendiak, alde batetik, eta Begoña Arbillaga Mujika eta Maria Jesus Gorrotxategi Pikasarrrik, bestetik, termino beretan aurkeztutako alegazioak ez onartzea hurrengo arrazoi hauengatik:</p> <p>Jabe hauen idatzian berriro aipatzen da adjudikazioetan ustez izan den akatsa –jabe hauen iritziz- 1991 urtean onartutako birpartzelazio proiektuan.</p> <p>Sektore honen garapenean izandako aktuzio desberdinen garapenean planteatu izan dute beren desadostasuna euren alde egindako finken adjudikazioarekin.</p> <p>Erreklamazioa jada planteatu zuten jabeek birpartzelazio proiektua onesterakoan eta sektore honetako Arau Subsidiarioen Elementuen Aldaketa dokumentua tramitatzekoan.</p> <p>Oraingo honetan, lehengoetan bezalaxe, alegazioaren planteamendua da 1991ko birpartzelazio proiektuaren deuseztasuna eskatzea, tramitazioa –lehen esaten zen moduan eta orain dioten moduan- “akats larriz josia” dagoelako eta “erabakitako prozedura erabat baztertu delako”.</p> <p>Horrela, irmotasuna duen egintza administratibo bati heldu diote.</p>	<p>reparcelación.</p> <p>1.5.-Desestimar las alegaciones presentadas (en idénticos términos) por D. José Antonio y D. Juan Ignacio Iturzaeta Ugartemendía, por un lado, y por Dña. Begoña Arbillaga Mugica y Dña. María Jesús Gorrochategui Picasarri, por otro, en base a las siguientes consideraciones:</p> <p>El escrito de estos propietarios vuelve sobre la cuestión de un supuesto error en las adjudicaciones en que –a juicio de estos propietarios- incurrió el proyecto de reparcelación aprobado en el año 1991.</p> <p>A lo largo de las distintas actuaciones habidas en el desarrollo de este sector, han planteado su disconformidad con la adjudicación de fincas resultantes practicada en su favor.</p> <p>La reclamación ya fue planteada por los propietarios con ocasión de la aprobación del proyecto de reparcelación, y también durante la tramitación del documento de Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de este sector.</p> <p>Tanto en la presente ocasión como en las anteriores, la alegación se formula en términos de solicitar la nulidad del proyecto de reparcelación de 1991, al estar su tramitación –según se señalaba entonces y también hoy- “plagada de graves irregularidades” y porque se ha “prescindido total y absolutamente del procedimiento establecido”.</p> <p>En este sentido, se vuelve de nuevo sobre un acto</p>
---	--

<p>Jabe horiek ez zuten haren aurka egin bide jurisdikzionaletan, eta horrenbestez, ez gaude Udalak hasierako izaeraz onartutako likidazio dokumentuaren aurkako alegazioen aurrean, baizik eta bere garaian onartutako birpartzelazio baten deuseztasuna denboraz kanpo eskatzen.</p> <p>2.-Hasierako onespina ematea IL.1 “Laskorain Goikoa” eremuko Birpartzelatze likidazio Proiektu zuzenduari, 2006.eko maiatzeko datarekin Manuel Blasco Garcia abokatuak egindakoari.</p> <p>3.-Espedientea jendaurrean edukitzea hamabost egun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eguneroko prentsan bidezko iragarkia argitaratu eta afektatu guztiei jakinarazi eta gero, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izateko aipameneko epearen barruan.</p>	<p>administrativo que devino firme y que estos propietarios no recurrieron en vía jurisdiccional, por lo que no estamos propiamente ante unas alegaciones al documento de liquidación inicialmente aprobado por el Ayuntamiento, sino ante una solicitud extemporánea de nulidad de la reparcelación aprobada en su momento.</p> <p>2.-Aprobar con carácter inicial el Proyecto corregido de liquidación de la Reparcelación del área SI.1 “Laskorain Goikoa” elaborada por el Abogado D. Manuel Blasco Garcia con fecha mayo de 2006.</p> <p>3.-Someter el expediente a información pública por término de quince días, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el B.O. de Gipuzkoa y en la prensa diaria y notificación personal a todos los afectados, a fin de que durante el mismo puedan presentarse las alegaciones que se estimen oportunas.</p>
--	---

6.- WordFast.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Word Fast itzulpen-memoria kudeatzeko aplikazioa Eleka enpresari erostea 7.366,2 € tan, Word Fast tresnaren lizentzia bat barne.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Euskara eta Hezkuntza, Kontuhartzaitetza eta Elekak etxeari ematea.

7.- Kutixi.

Gaia erabaki gabe geratu da.

8.- Euskal Herria plazako zentro sozilaren gastu-sarrerren likidazioa.

Gobernu batzar honek, 2005eko martxoaren 21ean, Euskal Herria plazako Zentro Sozialaren zerbitzuak gestionatzeko ardura lurreamendi egoitzari eman zion.

Hori horrela, 2006ko maiatzeko gastu-sarrerren likidazioa aurkeztu du lurramendi egoitzak.

Aipatu gastu-zerrenda ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

LEHENA.- Aurkeztutako likidazioa onartzea.

GASTUAK	18.596,33
SARRERAK	4.829,37
APORTAZIOA	13.766,96

BIGARREN.- Erabaki honen berri kontuhartzaileari eta lurramendi egoitzari ematea.

9.- 2007ko aurrekontua egiteko kronograma.

2007ko aurrekontua egiteko Ogasun batzordeak prestatutako kronograma ikusita, Gobernu batzar hau jakinaren gainean geratzen da eta erabaki du hurrengo osoko bilkurara pasatzea, onartua izan dadin.

10.- 15. Zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaileak 15. faktura-zerrenda, 320.472,44 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Aipatutako 15. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri Kontuhartzailetzari ematea.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatu da:

LEIDOR ZINEMAREN INGURUKO URBANIZAZIOA. PROIEKTUA ONESTEA ETA OBRAK KONTRATATZEA.	URBANIZACIÓN ENTORNO CINE LEIDOR. APROBACIÓN DEL PROYECTO Y CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS.
<p>Ikusirik Leidor ingurua urbanizatzeko proiektua, Peña Ganchegui y Asociados delakoak idatzitakoa, hain zuzen ere, eta lanak kontratatzeko idatzi den Klausula Administratibo Partikularren Plegua.</p> <p>Eta ikusirik proiektuari buruz udal ingeniariak idatzi duen txostena, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">E R A B A K I D U</p> <p><u>LEHENA</u>.- Leidor Ingurua Urbanizatzeko Peña Ganchegui y Asociados delakoak 2006ko maiatzeko dataz egin duen proiektua onartzea.</p> <p><u>BIGARREN</u>.- Leidor Ingurua urbanizatzeko proiektua exekuta-</p>	<p>Vistos, el proyecto de Urbanización entorno Leidor redactado por el estudio de arquitectura Peña Ganchegui y Asociados, y el pliego de cláusulas administrativas particulares redactados a fin de contratar las obras.</p> <p>Y visto el informe emitido al respecto por el Ingeniero municipal, así como el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">A C U E R D A</p> <p><u>PRIMERO</u>.- Aprobar el proyecto de Urbanización del entorno Leidor, redactado por el estudio de arquitectura Peña Ganchegui y Asociados, con fecha mayo de 2006.</p> <p><u>SEGUNDO</u>.- Aprobar el expediente para la contratación, por subasta, de</p>

<p>tzeko lanak, enkante bidez, kontratatzeke espedientea onartzea. Kontratatzeke exekuzioaren aurrekontua zazpi ehun eta laurogei mila berrehun eta laurogeita zazpi euro eta berrogeita bederatzizentimora (780.287,49 €) heltzen da.</p> <p><u>HIRUGARREN</u>.- Zazpi ehun eta laurogei mila berrehun eta laurogeita zazpi euro eta berrogeita bederatzizentimoko (780.287,49 €) gastua baliatzea, honako era honetan banatuta: ehun eta berrogeita hamazazpi mila euro (157.000,00 €) 601.511.20.01.2006 partidaren kargura eta gainerakoa kreditu aldaketaren kargura.</p> <p><u>LAUGARREN</u>.- Onartzea Klausula Administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke lizitazio irekiko prozedura bidez eta adjudikazioa enkante bidez egiteko.</p> <p><u>BOSGARREN</u>.- Adjudikazio prozedurari hasiera ematea, eta, horretarako, aipameneko obrak adjudikatzeko enkante deialdia egitea.</p>	<p>las obras contenidas en el Proyecto de Urbanización del entorno del Leidor, cuyo presupuesto de ejecución por contrata asciende a la cantidad de 780.287,49 € (setecientos ochenta mil doscientos ochenta y siete euros y cuarenta y nueve céntimos).</p> <p><u>TERCERO</u>.- Disponer el gasto de 780.287,49 € (setecientos ochenta mil doscientos ochenta y siete euros y cuarenta y nueve céntimos), según el siguiente detalle: 157.000,00 € (ciento cincuenta y siete mil euros) con cargo a la partida 601.511.20.01.2006 y el resto con cargo a la modificación de créditos.</p> <p><u>CUARTO</u>.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la contratación de las referidas obras por el procedimiento de licitación abierto y por la forma de adjudicación de subasta.</p> <p><u>QUINTO</u>.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación, y a tal efecto, convocar subasta para la adjudicación de las obras señaladas.</p>
---	---

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.

ALKATEA

Beh. Beh IDAZKARIA